



beste barik, errealidadea eraldatzeko



Ez gaizala kapitalismoak ustiatu

GOGOETA

Sistema kapitalistaren eraginez, hainbat idea barneratu dogu. Hauxe litzateke bat: soiltasunez jokatzea, beste barik, zeozer erostean diru gitxiago gastatzea dala konbentzidutea, eta hori tranpa handia da. Soiltasuna, batez be, gauza gitxiago kontsumitzea da. Diru gitxi ala asko izan, sistemak bere irabaziak maximizatu eta kontsumorako aukera ugari emotea ahalbideratuz, geure maila ekonomikora moldatzen dan konbite horri ez deusjagu jaramonik egin behar.

Geu ustiatzea da kapitalismoaren helburua, azkenean, ahalik eta diru gehien itzi daigun produktu komertzialetan. Honan, zera gertatzen da: gutako askok gauza kopuru bera (autoak, mobikorrak, oporrak, trajeak, aisialdia...) dogula, eta "gama" aldatzen dala bakarrik. Pentsatu ezker, alde handia dago gure artean, behar-beharrezkoak ez diran produktu horreetan gastatzen dogun soldataren portzentaje altuari jagokonez?

Marken publizidade elitistaren bidez, baliotsuago eta garrantzitsuago sentiarazoten gaituen punta-puntako produktuak erosten doguz eta, beste alde batetik, sasoi honetako beherapenen eta era askotako eskaintzen bidez, artikulu bakar bati be uko ez egiteko kapritxoa asetzen dogu, kalidade-mailakaz jolasean ibiliz eta gizartean integratuta sentituz. Eta, aldi berean, aukera biak bidebako ekoizpen-estrategia berean finkatuta dagoz. Teknologiaren aurrerapenari esker, diru-kopuru beraz gero eta produktu gehiago erostea lortzen dauan 'disney magian' sinistu izan dogu. Baina produktuen benetako kostua, orokorrean, ez da jaisten eta, azkenean, guri gitxiago kostatzen jakuz, baina, teknologiaren aurrerapenaren gaintik, txirotutako herrialdeetako beharginak eta ingurumena esplotatuz ekoiztu izan diralako. Horregaitik benetako soiltasunak gauza gitxiago kontsumitzera garoaz eta baita, batzuetan, diru gehiago gastatzera be. Hau kontuan hartu barik erosketa bakotxean gitxiago gastatzea ez da soila izatea, zekena izatea baino, beste batzuen sufrimentuaren lepotik gehiago kontsumitu ahal izateko.

ekintza

- Urtearen hasiera une aproposa da etxeko aurrekontua egiteko. Lortuko doguzan sarrerak eta egingo doguzan gastuak zeintzuk izango diran aurreikusiz. Holan jakinaren gainean erabiliko dogu dirua, ez dogu behar ez dogun gasturik egingo eta ardura handiagoz gastatuko dogu. Ez ahaztu helburua ez dala aurreztea, gehiago erdibanatzea baino.
- Ez jausi beherapenen tranpan. Beherapenek erakarrita, ez dogu behar dogulako erosten, merkeago dagoalako baino. Iges egin beherapenetako pagotxetatik. Benetan behar dozuna baino ez erosi. Ez ahaztu beherapenen atzean marka handiak dagozala eta euren indarra erabilten dabela publizidadearen bidez guri beharizanak sortzeko.
- Lehen gastatzen zenduana beste edo gitxiago gastatu, gauza gitxiago erosiz, bertoko komertziora (normalean ekologikoagoa) eta bidezko merkataritzako dendetara joanez, lan-esplotazioa eragiten duten markek eta denda-kateek saihestuz....
Aurrera egin kontsumo arduratsuan. Gogoratu:
Gitxiago kontsumitu, hobeto bizitzeko.